

**ERABAKIA, 2019ko apirilaren 1ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearena, 2019ko otsailaren 1eko Gerentearen erabaki bidez deitutako "SGIkerreko goi mailako teknikariak (Kalkulu Zientifikoa)" lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesurako, epaimahaiko kide titularrak eta ordezkioak izendatzeko.**

Gerentearen 2019ko otsailaren 1eko erabaki bidez "SGIkerreko goi mailako teknikariak (Kalkulu Zientifikoa)" lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesua deitu zen eta erabaki horren eranskinean deialdi hori arautuko duten oinarriak jaso ziren.

Arestian adierazitakoagatik eta errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko erabakiaren bidez (2017ko otsailaren 3ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

#### ERABAKI DUT:

**Lehenengoa.-** SGIkerreko goi mailako teknikariak (Kalkulu Zientifikoa) lan-poltsa zabaltzeko prozesuko hautaketa-probetako epaimahaiko kide titularren eta ordezkioen izendapena egitea.

	Titularra	Ordezkoa
Epaimahai burua	José Luis Martín González	Miguel Ángel Gutiérrez-Ortiz
Mahaikidea:	Alberto García Arribas	José María Mercero Larraza
Idazkaria:	José Manuel Nicolau Expósito	Gloria Lete Vergara

**Bigarrena.-** Erabaki hau UPV/EHUK horretarako prestatutako web orrian (<http://www.ehu.eus/eu/web/azp/deialdiak>) argitaratzeko agindua ematea.

Leioa, 2019ko apirilaren 1a

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia (2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

UPV/EHUKO GERENTEA



Miren Lorea Bilbao Arteche